

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak ikuskari izateko 14 plaza deitu ditu, 7 euskaraz eta 7 gaztelaniaz

Eskariak azaroaren 27ra bitartean aurkeztu ahalko dira, eta oposizio aldia otsailaren 10tik aurrera hasiko da

Astelehena, 2017.eko azaroak 6

Hezkuntza departamenduak ikuskaritzan aritzeko 14 plaza atera ditu, zazpina euskaraz eta gaztelaniaz. Bihar, azaroak 7, argitaratuko da deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean; hala, eskariak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da zabalik, 20 egun naturalez. Eskatzaileek instantzia bideratu beharko dute Hezkuntza departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzura; horretarako, nagusiki, Hezkuntzako errolda, Nafarroako gobernuaren gainerako erroldak, edo deialdian bertan esaten diren gainerako aukerak baliatu ahalko dituzte eskariak aurkezteko.

Hezkuntza ikuskatzaileen azkeneko lan-deialdi publikoa 2008an izan zen; orduan gaztelaniaz 6 plaza eta euskara 4 atera ziren. Oraingoan, berriz, zazpina izango dira. Euskarazko plazen hautagaiek EGA ala agiri baliokidea aurkeztu beharko dute.

Gaur egun 26 ikuskari ari dira Hezkuntza departamenduko Ikuskaritza zerbitzuan, zerbitzu-buruaz gain; 26 horietako 9 plaza titularrek betetzen dituzte, beste 17, aldiz, behin behineko ikuskatzaileak dira. 17 horietatik 3 ez dira lehiaketara aterako, zerbitzu burua ordezkatzeko duen pertsonarena bata, eta 2015 ezkerro erretiratutako birena.

Lan eskaintza publikoari dagokionez, oposaketaren fasean ezagutza pedagogiko, administratibo eta legegileak baloratuko dira, baita ikuskatzaile lanetarako ezagutza tekniko espezifikokoak ere; lehiaketa aldiaren, hautagaien merituak baloratuko dira, deialdiaren I. Gehigarrian azaltzen denari jarraituz. Azkenik, praktika-aldian, hezkuntza-ikuskatzaile lanetan jarduteko hautagaien beharrezko trebakuntza baloratuko da.